Sinatzailea/Autor de la firma: CN=AYUNTAMIENTO DE PLENTZIA/PLENTZIAKO UDALA, SERIALNUMBER=P4809000E, OU=sello electrónico, O=AYUNTAMIENTO DE PLENTZIA/PLENTZIAKO UDALA, C=ES
Ziurtagiriaren igorlea/Emisor certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A.
Kontaktu gunea/Informacion de contacto: +34 946 773 210
[illegible] 1:47:52 Z
KOPIA DA / ES COPIA EKS / CSV: 830d1e8a-30ef-49a4-9273-e112485d4226

PLENTZIAKO URI-UDALA

AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA
BIZKAIA

PLENTZIAKO [illegible] LA
Ayuntamiento de la [illegible]tzia
SARRERA
Entrada
EGUNA
Fecha 28 OCT. 2019
IRTEERA
Salida 1594.

Zigilu Elektronikoa
Sello Electrónico

Plentzia, 2019ko urriaren 28a

Enpresari estimatua,

Atseginez jakinarazten dizut Plentziako Udalak **TOKIKO TURISMO MAHAIA (TTM)** abiarazi duela 541/2019 Dekretuaren bitartez. Dekretu hori, gutun honekin batera doakizuna, eskuragarri dago www.plentzia.eus webgunean.

Mahai honen helburu nagusia da erreferentziazko lan-foro bihurtzea, datozen urteetan Plentziako jarduera turistikoa bultzatzeko, eta mahai horren bitartez garatuko dira Udalak sektore horretan egin nahi dituen proiektu gehienak.

Horregatik, zure parte-hartzea funtsezkoa da, elkarrekin eraiki dezagun gure udalerriaren premietara egokituko den proiektu integratzaile eta jasangarri bat.

Tokiko Turismo Mahaiaren lehen batzarra **datorren astelehenean izango da, azaroaren 11n, arratsaldeko 18:00etan**, Plentziako Udaletxeko Batzar Aretoan.

Denon artean ilusioz eta arrakastaz beteriko aro berri bati ekingo diogulakoan, jaso ezazu agur bero bat.

Plentzia, 28 de octubre de 2019

Estimada/o empresaria/o ,

Me complace informarte que el Ayuntamiento de Plentzia ha puesto en marcha la nueva **MESA DE TURISMO LOCAL (MTL)** a través de un el Decreto 541/2019, que puedes consultar en www.plentzia.eus y que encontrarás también adjunto a esta carta.

El objetivo principal de esta mesa es convertirse en el foro de trabajo de referencia para impulsar la actividad turística de Plentzia en los próximos años, y desde la que se desarrollarán la mayor parte de los proyectos del Ayuntamiento vinculados a este sector.

Por ello, es fundamental tu participación para que podamos construir un proyecto integrador, sostenible y que se adapte a las necesidades de nuestro municipio.

La primera sesión de la Mesa de Turismo Local, tendrá lugar el **lunes día 11 de noviembre a las 18:00 h**, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Plentzia.

Deseando comenzar una etapa ilusionante y llena de éxitos entre todas y todos, recibe un cordial saludo.

**Iñaki Saenz de la Fuente**

*Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Enplegu eta Landa Inguruneko zinegotzia*

*Concejal de Desarrollo Económico, Turismo, Comercio, Empleo y Medio Rural*

PLENTZIA[illegible]
URI-UDALA

PLENTZIAKO URI-UDALA

AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA
BIZKAIA

PLENTZIAKO URI UDALA
Ayuntamiento de la Villa de Plentzia
SARRERA
Entrada
EGUNA
Fecha 28 OCT. 2019
IRTEERA
Salida 1594

Plentzia, 2019ko urriaren 28a

Enpresari estimatua,

Atseginez jakinarazten dizut Plentziako Udalak **TOKIKO MERKATARITZA MAHAIA (TTM)** abiarazi duela 541/2019 Dekretuaren bitartez. Dekretu hori, gutun honekin batera doakizuna, eskuragarri dago www.plentzia.eus webgunean.

Mahai honen helburu nagusia da erreferentziazko lan-foro bihurtzea, datozen urteetan Plentziako merkatal jarduera bultzatzeko, eta mahai horren bitartez garatuko dira Udalak sektore horretan egin nahi dituen proiektu gehienak.

Horregatik, zure parte-hartzea funtsezkoa da, elkarrekin eraiki dezagun gure udalerriaren premietara egokituko den proiektu integratzaile eta berritzaile bat.

Tokiko Merkataritza Mahaiaren lehen batzarra **datorren astelehenean izango da, azaroaren 11n, arratsaldeko 20:15etan**, Plentziako Udaletxeko Batzar Aretoan.

Denon artean ilusioz eta arrakastaz beteriko aro berri bati ekingo diogulakoan, jaso ezazu agur bero bat.

Plentzia, 28 de octubre de 2019

Estimada/o empresaria/o ,

Me complace informarte que el Ayuntamiento de Plentzia ha puesto en marcha la nueva **MESA DE COMERCIO LOCAL (MTL)** a través de un el Decreto 541/2019, que puedes consultar en www.plentzia.eus y que encontrarás también adjunto a esta carta.

El objetivo principal de esta mesa es convertirse en el foro de trabajo de referencia para impulsar la actividad comercial de Plentzia en los próximos años, y desde la que se desarrollarán la mayor parte de los proyectos del Ayuntamiento vinculados a este sector.

Por ello, es fundamental tu participación para que podamos construir un proyecto integrador, revitalizador y que se adapte a las necesidades de nuestro municipio.

La primera sesión de la Mesa de Comercio Local, tendrá lugar el **lunes día 11 de noviembre a las 20:15 h**, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Plentzia.

Deseando comenzar una etapa ilusionante y llena de éxitos entre todas y todos, recibe un cordial saludo.

**Iñaki Saenz de la Fuente**

*Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Enplegu eta Landa Inguruneko zinegotzia*

*Concejal de Desarrollo Económico, Turismo, Comercio, Empleo y Medio Rural*

PLENTZIAKO URI-UDALA

PLENTZIAKO URI-UDALA

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE PLENTZIA
BIZKAIA

**DECRETO DE ALCALDIA Nº 541/2019**

**DECRETO POR EL QUE SE CREAN, ESTRUCTURAN Y REGULAN LA MESA DE TURISMO LOCAL (MTL) Y LA MESA DE COMERCIO LOCAL (MCL) DE PLENTZIA**

La actividad turística y comercial en Plentzia suponen un importante ámbito de desarrollo económico local además de ser sectores que dinamizan y mejoran la calidad de vida de las/los vecinas/os mediante los servicios e infraestructuras que se ponen en marcha para tal fin.

Debido a la relevancia que estos sectores han tenido y tienen para Plentzia, y con el fin de desarrollar una estrategia y una planificación activa y funcional para los próximos años, es necesario la creación de un espacio de trabajo público-privado en el que los distintos agentes del sector turístico y comercial puedan realizar sus aportaciones y colaborar directamente con las líneas de trabajo que desarrolle el Ayuntamiento en materia de turismo y comercio.

Así, y como paso previo a la elaboración, en un futuro del oportuno Reglamento Orgánico Municipal de Participación Ciudadana, es objeto del presente Decreto regular la constitución de una Mesa de Turismo Local (MTL) y una Mesa de Comercio Local (MCL) que sienten las bases de un modelo de gobernanza abierto e innovador, que pueda dar pie a un futuro Foro de Participación Ciudadana en torno a la actividad turística y comercial en los próximos años.

En base a lo anterior y de conformidad con lo previsto en los artículos 21.1.a) y 25.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, por el presente

**HE RESUELTO**

**Primero.-** Crear, de manera paralela e independiente las Mesas de Turismo y Comercio, (Mesa de Turismo Local, MTL y Mesa de Comercio Local, MCL)) cuyo funcionamiento se regirá por las normas que a continuación se establecen:

***1.- OBJETO Y NATURALEZA DE LAS MESAS***

*La Mesa de Turismo Local y la Mesa de Comercio Local se conciben como herramientas de cohesión entre este Ayuntamiento y la ciudadanía en el ámbito del turismo y el comercio.*

*Se trata de dos órganos consultivos de información y consenso, actuando al mismo tiempo como foro de debate y discusión al objeto de canalizar favorecer la participación de las empresas, los/as vecinas, asociaciones, entidades y colectivos*

*interesados en el conocimiento, planificación y gestión de todos aquellos asuntos relacionados con el turismo y el comercio.*

**2.- FUNCIONES**

*Son funciones de la Mesa de Turismo Local y de la Mesa de Comercio Local las siguientes:*

*a) Ser órgano de debate y participación que haga efectiva la cooperación entre el Ayuntamiento de Plentzia y las empresas, las/os vecinas/os, las asociaciones, entidades y colectivos que tengan por objeto el impulso y promoción del turismo y el comercio.*

*b) Efectuar propuestas de actuación municipal en el ámbito así como impulsar la adopción de las medidas que procedan.*

*c) Impulsar acciones de conocimiento, sensibilización y divulgación sobre los asuntos de su competencia.*

*d)) Cuantas otras funciones le sean encomendadas por el Ayuntamiento en relación con la planificación, desarrollo y evaluación de estrategias y actuaciones con incidencia sobre la actividad turística y comercial.*

**3.- FUNCIONAMIENTO**

*1.- La Mesa de Turismo Local y la Mesa de Comercio Local establecerán 4 mesas de trabajo anuales en el área de turismo y el comercio, y en cada una de ellas se tratarán las temáticas seleccionadas.*

*2.- La tarea de coordinación de las mesas de trabajo se ejercerá por la Concejalía Delegada del Área, quien efectuará las convocatorias oportunas de cada sesión.*

*3.- Además, la Mesa de Turismo Local y la Mesa de Comercio Local podrán crear tantas mesas de trabajo temáticas o monográficas en torno a la actividad turística y comercial como se estime desde la Concejalía Delegada.*

*4.- Cada una de las sesiones asistirán aquellas personas y colectivos a quienes se invite con un mínimo de 4 días laborables desde la Concejalía mediante carta o correo electrónico, en función de las temáticas seleccionadas. Sin perjuicio de ello, cualquier empresa, ciudadano/a, asociación o colectivo puede solicitar su participación en la Mesa de Turismo Local o en la Mesa de Comercio Local solicitándolo mediante registro en el Ayuntamiento e indicando su voluntad de incorporarse y el objetivo de su participación en el foro.*

*5.- Las sesiones se estructurarán según el orden del día previo y se desarrollaran en base a metodologías participativas que faciliten las intervenciones de todos los asistentes y permitan las aportaciones al grupo. El orden del día se publicará en la página web del Ayuntamiento www.plentzia.eus.*

*6.- Las sesiones tendrán lugar en la sede del Ayuntamiento de Plentzia, Astillero Enparantza 1. Tras cada sesión se redactará un resumen de los aspectos abordados en la Mesa de Turismo Local y en la Mesa de Comercio Local, y se publicará en la página web del Ayuntamiento.*

**Segundo.-** Otorgar la oportuna publicidad al contenido del presente Decreto, a través del Tablón de Anuncios, página web municipal y notificación a quienes pudieran estar interesados, grupos políticos municipales y agentes implicados. **Comuníquese, facilítense los recursos oportunos. Así lo manda y firma la Sra. Alcaldesa, Dª Elixabete Uribarri Uriarte, en Plentzia, a nueve de octubre de dos mil diecinueve.**

**Ante mí**

**La Secretaria**

**La Alcaldesa**

PLENTZIA'KO URI-UDALA

PLENTZIAKO URI-UDALA

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE PLENTZIA

BIZKAIA

## 541/2019 ALKATETZAKO DEKRETUA

## PLENTZIAKO TOKIKO TURISMO MAHAIA (TTM) ETA TOKIKO MERKATARITZA MAHAIA (TMM) SORTU, EGITURATU ETA ARAUTZEKO DEKRETUA

Plentziako turismo eta merkataritza jarduerak oso garrantzitsuak dira herriko ekonomiaren garapenerako eta, horrezaz gain, herritarren bizi-kalitatea dinamizatzen eta hobetzen dute, horretarako martxan jartzen diren zerbitzu eta azpiegituren bitartez.

Ikusirik bi sektore horiek Plentziarako izan duten eta daukaten garrantzia, eta datozen urteetarako estrategia eta plangintza aktibo eta funtzionalak garatu asmoz, beharrezkoa da lanerako espazio publiko-pribatu bat, non turismo eta merkataritza sektoreetako eragileek ekarpenak egin eta zuzenean kolaboratu ahal izango duten Udalak turismo eta merkataritza arloetan garatzen dituen lan-ildoetan.

Hala, eta etorkizunean Hiritarren Parte-hartzerako Udal Araudi Organiko bat prestatu aurretik, Dekretu honen helburua da Tokiko Turismo Mahai bat (TTM) eta Tokiko Merkataritza Mahai bat (TMM) eratzea, beren bitartez gobernantza eredu ireki eta berritzaile baten oinarriak jartzeko, eredu bat zeinaren fruitua izan baitaiteke Hiritarren Parte-hartzerako Foro bat sortzea etorkizunean, turismo eta merkataritza jarduerak lantzeko.

Aurreko guztian oinarrituta, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.a) eta 25.2 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, honen bitartez

**HAUXE ERABAKI DUT**

**Lehena.-** Modu paralelo eta independentean sortzea Turismo eta Merkataritza Mahaiak (Tokiko Turismo Mahaia-TTM eta Tokiko Merkataritza Mahaia-TMM), eta arau hauek jartzea euren funtzionamenduaren oinarri:

### *1.- MAHAIEN XEDEA ETA IZAERA*

*Tokiko Turismo Mahaia eta Tokiko Merkataritza Mahaia bi tresna izango dira Udalaren eta turismo zein merkataritza arloetako hiritarren arteko kohesioa indartzeko.*

*Informazio eta konsentsuko bi aholku-organo izango dira, eta aldi berean arituko dira hizketarako eta eztabaidarako gune bezala, turismoarekin zein merkataritzarekin lotutako gaietan interesatutako enpresa, herritar, elkarte, erakunde eta kolektiboen parte-hartzea bideratzeko eta errazteko.*

### *2.- ZEREGINAK*

*Hauek izango dira Tokiko Turismo Mahaiaren eta Tokiko Merkataritza Mahaiaren zereginak:*

*a) Eztabaida eta parte-hartze organo izatea elkarlana lortzeko Plentziako Udalaren eta turismoa eta merkataritza bultzatu eta sustatzen duten enpresa, herritar, elkarte, erakunde eta kolektiboen artean.*

*b) Ekintzak proposatzea Udalari esparru horietan, eta behar diren neurriak bultzatzea.*

*c) Beren lan-arloko gaiei buruzko ezagutza, sentsibilizazioa eta dibulgazioa bultzatzea.*

*d)Turismo eta merkataritza jardueretan eragina duten estrategia eta ekintzak planifikatu, garatu eta ebaluatzeko orduan Udalak agintzen dituen gainerako zeregin guztiak.*

**3.- *FUNTZIONAMENDUA***

*1.- Tokiko Turismo Mahaiak eta Tokiko Merkataritza Mahaiak lau lan-mahai eratuko dituzte urtean turismo eta merkataritza arloetan, eta lan-mahai horietako bakoitzean aukeratzen diren gaiak landuko dira*

*2.- Lan-mahaiak Arlo bakoitzeko Zinegotzi Delegatuak koordinatuko ditu, eta berak egingo ditu bilera bakoitzerako deialdiak.*

*3.- Gainera, Tokiko Turismo Mahaiak eta Tokiko Merkataritza Mahaiak eskumena dute zinegotzi delegatuak komenigarritzat jotzen dituen bezainbeste lan-mahai tematiko edo monografiko sortzeko turismo eta merkataritza gaietan.*

*4.- Bileretan parte hartuko duten pertsona eta kolektiboak zinegotziak gonbidatuko ditu gutxienez lau lanegun lehenago abisatuta, dela posta arruntez, dela posta elektronikoz, eta landuko diren gaien arabera aukeratuko dira bilerarako gonbidatuak. Halere, edozein enpresa, herritar, elkarte edo kolektibok eskatu ahal izango du Tokiko Turismo Mahaian edo Tokiko Merkataritza Mahaian parte hartzea, nahikoa izango delarik horretarako eskaera bat egitea Udaletxeko erregistroan eta bertan adieraztea zergatik parte hartu nahi duen foroan.*

*5.- Bilerak aurrez zehaztutako gai-ordenari jarraituz egingo dira, eta metodologia parte-hartzaileak erabiliko dira bertaratuen parte-hartzea ahalbidetzeko eta taldeari ekarpenak egin ahal izateko. Gai-ordena Udalaren web orrian (www.plentzia.eus) argitaratuko da.*

*6.- Bilerak Plentziako Udalaren egoitzan egingo dira, hots, Astillero Enparantzako 1 zenbakian. Bilera bakoitzaren ostean, Tokiko Turismo Mahaian eta Tokiko Merkataritza*

PLENTZIAKO URI-UDALA

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE PLENTZIA
BIZKAIA

*Mahaian landutako gaien laburpen bat idatziko da eta Udalaren web orrian argitaratuko da.*

**Bigarrena.-** Dagokion publizitatea ematea Dekretu honi, argitara emanez Iragarki Taulan eta udalaren web orrian, eta bere berri emanez interesatu guztiei, udal talde politikoei eta inplikatutako eragileei. **Jakinarazi bedi eta bidera bitez behar diren baliabide guztiak. Halaxe agintzen eta sinatzen du Elixabete Uribarri Uriarte alkate andreak Plentzian, bi mila eta hemeretziko urriaren bederatzian.**

**Nire aurrean** **Alkateak**

**Idazkariak**

PLENTZIAKO URI-UDALA